



Covid-19aren eragina eta enplegua: eskuragarri dauden lehen datuen azterketa



IKEI azken egunetan egin duen covid-19ak Euskadin izandako eragin ekonomikoaren inguruko azterketari jarraipena emanez, errealitate sozioekonomikoaren dimentsio sentikorrenetako bat aztertzen jarraitzen dugu, krisi honek enpleguan duen eragina, alegia. Helburu honekin, berriki argitaratu diren afiliazioaren (Gizarte Segurantzak) eta erregistratutako langabeziaren (SEPE) datuak, martxoko azken egunari dagozkionak, **covid-19ak enpleguan izan duen lehen eragina azaltzen dute**. Análisi honetan, datu horiek 2020ko otsaileko eta 2019ko martxo datuekin kontrajartzen dira.

Gizarte Segurantzara Afiliazioa Espainian				
	otsa-19	mar-19	otsa-20	mar-20
Hileko batz bestea	14.392.065	14.540.355	14.788.240	14.547.610
Hileko azken egun	14.369.846	14.587.707	14.812.757	13.957.676
Aldea	-22.219	47.352	24.517	-589.934

Covid-19ren eragina neurtzeko datu garrantzitsua martxoaren 31ko afiliazioa da; izan ere, hileko batez besteko afiliazioaren eta martxoaren 31ko afiliazioaren arteko aldea 589.934 afiliatu gutxiagokoa da estatu mailan.

Afiliazioaren bilakaera Espainian				
	urte arteko aldaketa		hilabete arteko aldaketa	
	otsa. 20/19	mar 20/19	mar/otsa 19	mar/otsa 20
kopuruan				
Hileko batz bestea	396.176	7.255	148.290	-240.630
Hileko azken egun	442.911	-630.031	217.861	-855.081
tasa %				
Hileko batz bestea	2,8	0,0	1,0	-1,6
Hileko azken egun	3,1	-4,3	1,5	-5,8

Zentzu honetan, martxo amaierako datuak adierazte du **covid-19ren eraginaren ondorioz 855.081 afiliatu galdu direla otsailaren 29arekin alderatuta (-%5,8)**. Aldiz, hilabeteko batez bestekoari dagokionez, eragina txikiagoa da (-240.630 afiliazio martxoan; -%1,6), normaltasuneko hilabete erdiko datuak biltzen baititu (martxokoaren 1etik 16ra).

Normalean, Gizarte Segurantzak hileko batez bestekoaren datuak argitaratzen ditu, eta 8-10 egun ondoren, hileko azken eguneko datuak eskuragarri daude. 2020ko martxoa ez da salbuespena izan, **eta EAEraiko eskuragarri dauden afiliazio-datuak hileko batez bestekoari dagozkio**.

Gizarte Segurantzara Afiliazioa (hileko batz bestekoa)									
	Martxoa 2020	Urte arteko aldaketa (%)		Hilabete arteko aldaketa (%)		Urte arteko aldaketa (kopura)		Hilabete arteko aldaketa (kopura)	
		otsaila 20/19	martxoa 20/19	mar/ots 19	mar/ots 20	otsaila 20/19	martxoa 20/19	mar/otsa 19	mar/otsa 20
		Araba	158.415	1,6	0,2	0,4	-1,0	2.560	266
Bizkaia	324.475	2,0	0,9	0,7	-0,3	6.242	3.032	2.267	-943
Gipuzkoa	484.499	1,8	0,8	0,3	-0,7	8.552	3.816	1.516	-3.220
EAE	967.389	1,8	0,7	0,5	-0,6	17.354	7.113	4.477	-5.764
Espainia	19.006.760	1,9	-0,2	0,8	-1,3	361.757	-36.817	155.104	-243.469

Gizarte Segurantzara batez besteko afiliazioa EAEn martxoan 967.389 pertsonakoa da, otsailan baino 5.764 pertsona gutxiago (-%0,6) otsaileko batz besteko datuarekin alderatuz eta Estatu osoan erregistratutako galeraren erdia da (-%1,3) suposatzen duena ehunekotan. covid-19k EAEn duen eraginaren benetako erreferentziara hurbiltzeko, eta datuen portaera (hileko batez bestekoa eta hileko azken eguna) berdina izango dela suposatuz, aurreratu **daiteke martxoaren azken egunean afiliazioaren beherakada %2,7koa izango litzatekeela otsailaren azken egunarekiko (20.766 afiliazio gutxiago)**.

Gizarte Segurantzara Afiliazioa EAEn			
	Abuztua 2008	Iraila 2008	Urria 2008
hileko batz bestea	968.310	972.344	976.088
hileko azken eguna	964.623	966.405	968.864
aldea	-3.687	-5.939	-7.224
	Abuztua 2009	Iraila 2009	Urria 2009
hileko batz bestea	930.545	932.088	937.983
hileko azken eguna	918.399	928.631	937.633
aldea	-12.146	-3.457	-350
aldea 09/08 (hileko azken eguna)	-46.224	-37.774	-31.231
	-4,8	-3,9	-3,2

Zer esan dezakegu krisi honen inguruan, 2008ko krisiarekin alderatuz? EAEn Gizarte Segurantzara afiliatutako datuen konparaketak, 2008 eta 2009ko abuztua eta urria bitartean (hileko batez bestekoa eta hileko azken eguneko) bi gertaera erakusten ditu. Alde batetik, neurtzeko bi moduen arteko diferentzia (hileko batez bestekoa eta hileko azken eguneko) geroz eta handiagoa da inpaktutik zenbat eta gertuago egon eta txikitzen doa denbora igaro ahala (krisi-egoera finkatu egin zen). Bestetik, krisi horren eragina (urte artekoa 2009 eta 2008 alderatuz) murrizketa bat izan zuen %4,8tik %3,2ra doana (abuztutik urrira).



Testuinguru hau errepikatuko balitza egungo egoeran, **oraindik ere lehen inpaktura mugatuta dagoen galera erakusten duena (15 egun), litekeena da hurrengo bi hilabeteetan handitzea %4-5 ingurukoa izan arte (45.000-55.000 afiliazio gutxiago)**. Horrek suposatuko luke EAEk azken lau urteetan irabazitako enplegua galtzea eta 2015eko antzeko afiliazio-mailetara itzultzea (925.290 afiliazio abenduan). Eta, zuhurtziaz, izan ere, egoera okerrenaren baieztapena osasun alerta luzatzen den denboraren eta normaltasuna berreskuratzeko gaitasunaren (nazionala eta nazioartekoa) eta jarduera eusteko eta suspertzeko abian jartzen diren neurrien arabera izango da.

Erregistratutako langabeziari buruzko datuek covid-19ren krisiak enpleguan izan duen lehen inpaktua erakusten dute. EAEn erregistratutako langabezia 128.213 pertsonakoa da, %8,7ko eta %9,4ko hazkundearekin 2020ko otsailarekiko eta 2019ko martxoarekiko. Beraz, 2020ko martxoak 10.000 pertsona baino gehiago batu ditu langabeziara, 2.500 pertsona inguru kendu behar ziren hilabetean; eta, eragin globala %11ko inguruko gorakada da. Hau da, lehenengo balantzea da martxoan langabeziaren hazkunde global hori 13.000 pertsonatik gorakoa dela (izena eman berri dutenak eta erregistrotik atera ez direnak), urtean zehar normaltasunari eutsi izan balio sortuko liratekeen 15.000 enpleguen baliokidea. Ondorioz, dagoeneko suntsitu dela 2020an sortu beharko litzatekeen enplegua.

	Martxoak 2020	Urte arteko aldakuntza (%)		Hilabete arteko aldakuntza (%)		Urte arteko aldakuntza (%)		Hilabete arteko aldakuntza (%)	
		otsaila	martxoak	otsaila	martxoak	otsaila	martxoak	otsaila	martxoak
		2020/2019	2020/2019	2020/2019	2020/2019	20/19	20/19	2019	2020
Araba	21.448	-1,7	10,3	-1,7	10,3	-333	2.009	-233	2.109
Bizkaia	72.668	-2,0	8,0	-2,0	8,0	-1.358	5.373	-938	5.793
Gipuzkoa	34.097	-2,9	9,2	-2,9	9,2	-933	2.879	-740	3.072
EAE	128.213	-2,2	8,7	-2,2	8,7	-2.624	10.261	-1.911	10.974
Espainia	3.548.312	-1,3	9,0	-1,3	9,0	-42.993	293.228	-33.956	302.265

	Emakumeak				Gizonak			
	Urte arteko aldakuntza (%)		Hilabete arteko aldakuntza (%)		Urte arteko aldakuntza (%)		Hilabete arteko aldakuntza (%)	
	otsaila 20/19	martxoak 20/19	martx/ otsa.19	martx/ otsa. 20	otsaila 20/19	martxoak 20/19	martx/ otsa.19	martx/ otsa. 20
Araba	-2,9	5,5	-1,1	7,5	0,1	17,4	-1,3	15,8
Bizkaia	-3,0	5,0	-1,2	7,0	-0,7	11,9	-1,6	10,8
Gipuzkoa	-4,5	5,8	-2,1	8,4	-0,8	14,0	-2,7	11,9
EAE	-3,4	5,3	-1,4	7,4	-0,6	13,3	-1,8	11,9
Espainia	-1,7	5,4	-0,7	6,5	-0,8	14,2	-1,6	13,3

Langabeziaren igoera honek gehiago eragiten die gizonei (%13,3 eta %11,9 urte arteko eta hilabete arteko tasan) emakumei baino (%5,3 eta %7,4, urte arteko eta hilabete arteko tasan). Emaitzak antzekoak dira (Lurraldeak, Espainia), baina alde txiki batzuekin.

	mar 20/19		mar/ots 20	
	zbk	%	zbk	%
Andaluzia	140.014	17,4	138.569	17,2
Aragoi	7.069	10,8	5.509	8,2
Asturias	2.327	3,1	4.511	6,2
Balearrak	8.008	14,6	5.204	9,0
Kanariar Uharteak	18.399	8,8	19.797	9,5
Kantabria	1.938	5,0	1.769	4,6
Gaztela eta Leon	3.877	2,6	8.921	6,2
Gaztela Mantxa	39.245	26,4	12.271	7,0
Katalunia	21.307	5,4	21.833	5,5
Balentzia	31.432	8,5	35.565	9,7
Extremadura	10.905	10,7	7.442	7,1
Galizia	3.640	2,1	8.252	5,0
Madril	10.023	2,8	10.864	3,1
Murtzia	2.532	2,4	5.827	5,7
Nafarroa	3.672	10,9	3.390	10,0
EAE	10.261	8,7	10.974	9,4
Errioxa	1.530	9,3	1.519	9,2
Espainia	293.228	9,0	302.265	9,3

Autonomia-erkidegoen arabera inpaktua oso desberdina da, eta aldakuntza-tartea are handiagoa da emaitzak urte arteko edo hilabete arteko terminoetan alderatzen badira; izan ere, autonomia-erkidego bakoitzean jardueren egitura desberdina da, maila handiagoan edo txikiagoan izanik etenak jasan dituzten jarduerak, funtsezkoak eta funtsezkoak ez direnak eta/edo telelanaren bidez enplegu iraunkorra lortzeko aukerak.

Andaluzian izandako eragina nabarmentzen da (%17,4 eta %17,2, urte artekoa eta hilabete artekoa), Katalunia (%5,4 eta %5,5) edo Madrilekin (%2,8 eta %3,1) alderatuz eta EAEn eta Nafarroan eragin antzekoa izan delarik (industria-pisu handiagoa duten ekoizpen-egiturak).

Datozen hilabeteek bilakaera hori berretsiko dute, eta turismo-espezializazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta eragin larriagoa izango duela aurreikusten da.

Laburbilduz: argi dago martxoko afiliazioaren eta langabeziaren datuek **covid-19aren krisiak enpleguan izango duen eraginaren garrantziaren tamaina erakusten dutela**, baina apirilko eta maiatzeko datuak izango dira egoera gainditzeko eta jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren hazkunde-bidera itzuli ahal izateko erronka azalduko dutenak.